

# HEZKUNTZA EZ DAGO SALGAI

---



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

# Aurkibidea

---

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>3</b>
a) Lan Hitzarmena, 21. artikulua. Plangintza Batzorde Teknikoa	5
b) Jarraipenerako lurralde-batzordeak	5
<b>2. Baimen administratiboa, planifikazioa eta ituna</b> .....	<b>6</b>
a) Baimen administratiboa	6
b) Planifikazioa	6
c) Onarpena	8
d) Ituna	8
e) Baimen administratiboa, planifikazioa eta ituna	12
f) Horretaz gain, itunpeko ikastetxeek beste hainbat diru-sarrera ere izaten dituzte, tartean, irregulartasun zantzua dutenak	12
<b>3. Prozeduran topatutako iruzurrak eta irregulartasunak</b> .....	<b>13</b>
i) Baimen administratibo nahikorik gabe planifikatu	13
ii) Auzoan, herrian edo eskualdean eskaintza nahikoa egon arren unitate berriak planifikatzea	14
iii) Onarpen dekretuak edo eskola mapak aintzat hartzen ez dituzten planifikazioak	15
iv) Eraikin batean hainbat ikastetxe	15
v) Ituna jasotzeko ikasle nahikoa ez duten gelatan, patronal bereko beste ikastetxe bateko ikasleak matrikulatu	16
vi) Onarpenean, barematuak izan diren ikasleak, bigarren aukerara joan beharrean, gela pribatuetan jasotzea	16
<b>4. Gaur egungo planifikazioa (2016-2022). Itunpekoen eskaintza puztua</b> .....	<b>17</b>
<b>5. Haur-eskolak, privatizazio basatiaren adibide</b> .....	<b>20</b>
<b>Eranskinak</b> .....	<b>22</b>
1. Taldeak eratzeko ikasle kopuruak itunpeko ikastetxe pribatuetan	22
2. Baimen administratibo nahikorik gabe gehiegizko planifikazioa	24
3. Planifikazio puztuak	28



# 1. Sarrera

---

1978ko Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua hezkuntzarako eskubidearen unibertsaltasuna ezartzen du; alegia, oinarrizko hezkuntzak nahitaezkoa eta doakoa izan behar duela denontzat. Eta hori bermatzeko betebeharra esleitzen die agintari publikoei. Horrez gain, ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortzen du, eta agintari publikoek ikastetxe pribatuei «laguntzeko» aukera ezartzen du, baldin eta legez ezarritako eskakizunak betetzen badituzte. Noski, xedapen horiek hainbat konpromiso ezartzen dizkiete administrazio publikoei: hezkuntzarako eskubide unibertsaltasuna berezkoa dute subjektu guztiek eta, are gehiago, epe jakin batez eskolara joateko betebeharra daukate; ondorioz, estatuak betebeharra du biztanleria oso-osoari eskolatzeko aukera emateko, dohainik. Estatuak, horrenbestez, erantzukizun hori bete behar du derrigorrez; alabaina, titulartasun pribatuko ikastetxeei laguntzea aukerakoa da Konstituzioaren arabera. Ikastetxe horiek ez daukate laguntza jasotzeko eskubide automatikorik, ezta agintari publikoek halakoak emateko betebeharririk ere (are gutxiago laguntza horrekin ikastetxea erabat finantzatzeko betebeharririk). Salbuespen gisa eta subsidiarioki agintari publikoek ikastetxe pribatuei laguntzea erabakiz gero, haiek aurrez ezarritako helburuak bete beharko dituzte nahitaez, eta kontrol zorrotz baten menpe egongo dira.

Hori horrela, LODE Lege Organikoak gaur arte iraun duen hezkuntza-itunen sistema ezarri zuen. Dena den, beste arrazoi bat ere egon zen: gobernua (PSOEko lehenengoa) saiatu zen ordena erlijiosoek diktadura garaitik dirulaguntza gisa eta askotan inolako kontrolik gabe jasotzen zituzten diru publikoko gehiegizko zenbatekoak ordenatzen eta arrazionalizatzen.

Hainbat urte eta hezkuntza-legeren ondoren (LOGSE, LOCE, LOE, LOMCE), sistema hori oraindik bere horretan eta indartuta dago, ia batere aldaketarik gabe. Horrez gain, LODE Legearen hutsunez baliatuz, ikastetxe pribatu gehiago sortu ziren, eta finantzazio publikoa lortu zuten itunen bidez. Ondorioz, gaur egun hezkuntza-sistema duala daukagu: batetik sare publikoa eta bestetik sare pribatu itundua (badago itundu gabeko sare pribatu bat ere, baina ez dauka ia batere pisurik sisteman). Horrenbestez, praktikan estatuak ez du bete biztanleria osoa eskola daitekeela bermatzeko adina ikastetxe publiko jartzeko betebeharra, eta nahiago izan du ikastetxe pribatuen esku utzi zeregin hori. Hala, ikastetxe pribatuei eskuordetu die bere lege-erantzukizuna, eta ia mende erdiz horiei eman dizkie hainbat eta hainbat aurrekontu-partida, diru horrekin bere titulartasuneko sare publikoa indartu beharrean.

LODEren ondoriozko arautegia EAERI dagokionez, oraindik indarrean jarraitzen duen 239/1987ko itunen dekretua da.

Hezkuntza sistemaren egituraketan, ikastetxeen antolaketan eta hezkuntza-eskaintza planifikatzerakoan, itunpeko ikastetxe pribatuen planifikazioa erabat baldintzatzen ari da eskaintza orokorra (EAEn jakina den bezala, itunpeko ikastetxe pribatuek ikasle guztien % 50 jasotzen dute, Europar Batasuneko errealitate oso urrun). Familiek ikastetxea aukeratzeko duten eskubideak ezin du mugatu euskal hezkuntza-sistema antolatzeko administrazioak duen erantzukizuna.

Eskola Mapa hezkuntza eskaintzaren plangintzarako oinarrizko tresna da, eta egundoko garrantzia du hezkuntza-sistemaren egituraketan. Unibertsitetez besteko ikastetxeak antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen ditu, besteak beste, eskola bilguneak, eragin

eremuak, ikastetxeen tipologia, ikasle kopurua mailaka, hezkuntza-ibilbideak, ikastetxeen arteko atxikipenak...

Indarrean dagoenak, 2009koak, 1996koa ordezkatu zuen aldaketa kualitatibo esanguratsu batzuekin, garaian salatu genituenak eta ondo datozenak gogoratzea egungo egoeraren testuingurua ulertzeko.

Estatuko LOE legeak ezarritako aldaketak txertatu ziren dekretuan. Esanguratsuena hauxe: hezkuntzarako zerbitzu publiko hori ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez eman beharko da (108.4 artikulua). Horrek Euskal Eskola Publikoaren legeak ardatz zuen eskola publikoa baztertu zuen.

Aurreko mapak sare publikoko esparrua arautzen zuen, egungoak, aldiz, hezkuntza-eskaintza orokor berean uztartzen ditu ikastetxe publikoak eta itunpekoak. Berdindu nahian edo, gauza berbera balira bezala.

Ez gentozen bat inondik inora 2009koak ikastetxe pribatuak zerbitzu publikoaren definizioarekin, haien jabegoa, helburuak, ezaugarriak eta betekizunak ez baitziren kontuan hartzen. Tamalez denborak arrazoi eman digu ardura partekatuari dagokionez, sareen arteko desoreka gero eta handiagoa baita.

Bide horretan, gurasoek ikastetxea aukeratzeko eskubideari mugarik jarri ez izanak eta ituntze unibertsalaren arteko distorsioak, inongo kontrolik gabeak gainera, bere bidea egin du eta indartu egin du testuinguru europarrean anomalia izango litzatekeen izaera dualeko sistema guztiz polarizatua.

Ikaspostuen eskaintza arautzen duen dekretuko 5. artikulua dakarren tranpa: ikasturte bakoitzaren hasieran egingo da ikaspostuen eskaintza bat, bilgune, zonalde edo udalerrri bakoitzaren eskolatze-premiei egokituko zaiena, eta kasu bakoitzean bermatuko da eskaintza nahikoa eta egokia izatea. Hau ez da betetzen itunpeko ikastetxeen kasuan. Arrazoa: aurrez LOMCEn ondorioz hitzartutako itun-plangintza bidez, gutxienezko sei urteko eskaintza adostu eta hitzartuta dutelako. Hitzarmen hori ezin daiteke atzera bota, eta handitu egin daiteke, baina gutxitu ez. Plangintza arautzea-hitzartzea lehenengo pausoa da, ondoren, izandako matrikulazioaren arabera itunak gauzatzeko (ofizios gauzatzen da I. eranskineko ratio eta irizpideak betez).

Beraz, EAEko hezkuntza-sistema duala kontuan izanik, konklusio gisa atera daiteke itunpeko ikastetxeen eskaintzak erabat baldintzatzen duela publikoarena, subsidiarioa izateraino.

Non hartzen dira planifikazioko erabaki hauek? Hauek dira Sindikatuak ikaspostuen eskaintza eta eskola maparen azterketa aztertzeko, negoziatzeko eta proposamenak egiteko dituen mahaiak eta esparruak:

### a) Lan Hitzarmena, 21. artikulua. Plangintza Batzorde Teknikoa

*«Hitzarmen honen ondorioz, Plangintza Batzorde Teknikoa (PBT) eratuko da Euskal Autonomia Erkidego osorako. Batzordeko burua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko zuzendari bat izango da, kasuan kasukoa, aztertu beharreko gaiekin bat etorriz. PBT hartuko da plangintzari buruzko guztia kontsultatzeko, parte hartzeko eta negoziatzeko organotzat. Horren ondorioz, PBT horrek eskumenak izango ditu plangintza-arau orokorretan, eskola- mapan eta haren zonifikazioan, ikastetxe-sarean egiten diren aldaketetan, hezkuntza-etapetarako jartzen diren giza baliabideetan, laguntza-zerbitzuetan, irakaskuntzak arautzen eta hezkuntza-eskaintza osatzen, kidego eta lanpostuen arteko mugimenduetan».*

10 urte baino gehiago dira BPT biltzen ez dela. Azken urte hauetan BPT biltzeko eskaerak egin dira, baina administrazioak beti saihestu ditu.

### b) Jarraipenerako lurralde-batzordeak

2009tik ez dira bildu. 2021eko otsailean formalki biltzeko eskaera egin zen eta «administrazioaren isiltasunaren» aurrean, **STEILAS**ek eta Baikarak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dute.

Laburbilduz, hau da egoera: planifikazioa aldatzeko sindikatuek edo familiek eragina izan dezaketen batzordeak blokeatuta edo deuseztatuta ditu administrazioak, horrela, inongo konfrontaziorik gabe, eskuak libre dituzte beraien politika neoliberala hezkuntzan aplikatzeko.

Hurrengo urteetarako datorren jaiotza-tasa jaitsiera ikusita eta sei urteko plangintzaren atarian, eskola publikoa ez dago posiziorik onenean. Hezkuntza Sailak itunpeko ikastetxeen aldeko apustua egiten ari da nabarmen eta norabidea aldatu ezean, aurrean izango gaituzte politika pribatizatzaile bortitz hauek salatzen.

Txosten honetan jasotzen dira EAEko Hezkuntza plangintza nola eta non egosten den, administrazioaren konplizitatearekin itunpeko ikastetxe pribatuek egiten dituzten irregulartasunak, itunpeko ikastetxe pribatuen eskaintza puztuak edo haur-eskoletan ematen den pribatizazio basatia.

## 2.

# Baimen administratiboa, planifikazioa eta ituna

---

### a) Baimen administratiboa

Baimen administratiboa otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretuak arautzen du, eta haur-hezkuntzako bigarren zikloko lehen eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko betekizunak ezartzen ditu. Betekizunen artean, funtzionamendua baimentzeko xedapenetan finkatuko da, eskola bakoitzaren instalazio eta baldintzak kontuan izanda, ikastetxe bakoitzaren eskola-unitate bakoitzeko gehienezko ikasle kopurua. Ikastetxe bakoitzaren baimen administratiboko aginduak zehazten du gehienez ere zenbat unitate (gela) eta ikaspostuentzako (ikasleentzako) baimena duen ikastetxeak. Beraz, lehenik, gehienezko ikaspostu kopurua ikastetxe itundu bakoitzaren baimen administratiboak mugatzen du. Baimen administratibo berriak eman edo ukatu zaizkien EAEko aldizkari ofizialean azaltzen da.

Baimen administratiboak indarrean izan behar dituzte ikastetxeek ikasleen onarpena hasten den egun horretarako.

Azken urteetan, hainbat itunpeko ikastetxe pribatuek, administrazioaren konplizitatearekin, irakaskuntza arautua emateko ezinbesteko baldintza den baimen administratiboak baimendutako ikasleak baino gehiago matrikulatu dituzte onarpen-prozesuetan.

### b) Planifikazioa

**1/2018 onarpen dekretua: 14. artikuluan** ondorengoa adierazten da: «hezkuntza-arloko eskumena duen sailari dagokio zehaztea ikastetxe publikoek eta itunpeko ikastetxe pribatuek gehienez zenbat talde eta ikasle onartu dezaketen hezkuntza-etapa edo -maila bakoitzaren modalitate eta ikasturte bakoitzean, aipatutako sailak xedatutako planifikazioaren arabera».

Hezkuntza sailak itunpeko ikastetxe pribatuek onartu ditzaketen gehienezko ikasle kopurua sailak eginiko planifikaziora mugatzen du. Planifikatutako unitateak eta baimen administratiboak baimendutakoak berdinak izan daitezke, edo ez, baina planifikatutako gelak ezin dira inoiz baimendutako unitateak baino gehiago izan.

### Seiurteko planifikazioa (2016-22)

Deialdi orokorra 2016ko apirilaren 27an argitaratu zen eta ebazpena, 2016ko urriaren 17an. Hor, besteak beste, 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako itunpeko ikastetxeek duten plangintza onartzen da, hezkuntza-maila bakoitzeko unitate kopurua zehaztuz.

1. taula. Laskorain Ikastolako 2016-2022 sei urteko planifikazioa

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Taldeak					
				2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21	2021-22
Tolosa	CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP	Haur Hezk.	Haur Hezk.	12	12	12	12	12	12
		Lehen Hezk.	Lehen Hezk.	24	24	24	24	24	24
		DBH I	DBH I	7	8	8	8	8	8
		DBH II	DBH II	6	6	7	8	8	8
		Batxilergoa	Batxilergoa	8	8	8	8	8	8

Sei urteko planifikazioak zorua ezartzen du. Itunpeko ikastetxeari sei urtean ez zaio planifikatuko sei urteko planifikazioak jasotzen duena baino gutxiago, baina posible da aldaketak izatea gorantz.

### Sei urteko planifikazioari aldaketak

Sei urteko planifikazioari aldaketak egiteko, urriaren amaieran, eskabideak aurkezteko epea zabaltzen da urtero. Ikastetxeek aurkeztutako eskabideak aztertu, eta ikasketa ezberdinetan proposamenak egin ostean, ebazpena apirilaren hasieran argitaratzen da. Ebazpena aldekoa denean planifikazio-aldaketa ekarriko du.

2. taula. Laskorain Ikastolako 2020-2021 urteko planifikazio aldaketa

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Taldeak					
				2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21	2021-22
Tolosa	CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP	Haur Hezkuntza	Haur Hezkuntza					12	12
		Lehen Hezkuntza	Lehen Hezkuntza					24	24
		DBH I	DBH I					8	8
		DBH II	DBH II					8	8
		Batxilergoa	Batxilergoa					<b>9</b>	<b>10</b>

Baina beti ez da hala gertatzen, ebazpena aurkakoa izan daiteke. Ukatzeko ohiko arrazoiak, «azken onarpen-prozesuan ikasle nahiko ez izatea» edo «ikastetxe publiko eta itunduen sareko egungo eskaintza nahikoa izatea» dira. Hala ere, azken erabaki hori arbitrarioa da, eta herrian edo eskualdean eskaintza nahikoa egon arren planifikazio-aldaketa eman zaien ikastetxeak badira.

### 3. taula. Gainberri Kirol Heziketa zentroari 2021-2022 urteko planifikazio-aldaketa ukatzea

Ukatzeko arrazoiak:	1. Ez ditu betetzen eskolatzeko beharrak.		
<b>Gipuzkoa</b>			
Herria / Localidad	Ikastetxea / Centro	Maila	Ukatzeko arrazoa
Tolosa	CPES Gainberri Kirol Heziketa BHIP	Erdi-mailako heziketa-zikloa Goi-mailako heziketa-zikloa	1

#### c) Onarpena

Urtarrilaren amaieran hasten da ikasleen onarpen-prozesua. Honek benetako garrantzia du HH eta DBHko etapan lehenengo mailatan, hauek markatuko baitute etapa horietan ikastetxeak izango dituen gela kopurua. Familiek, hurrenkera bidez, beraien haurrak non matrikulatu nahi dituzten adierazten dute, lehendabizi gogokoen duten ikastetxea jarritz. Martxoaren hasieran behin-behineko zerrendak argitaratzen dira eta erreklamazioak aztertu ondoren, martxoaren amaieran, behin betikoak.

Ikastetxe batek jaso ditzakeen haur kopurua planifikazioak mugatzen du. Planifikatutako kopurua baina gehiago matrikulatzen badira, haur horiek barematu egingo dira eta familiak hurrenkera jarritako bigarren ikastetxera joango dira. Inolaz ere ezin izango dira geratu aukeratu zuten lehen ikastetxe horretan.

#### d) Ituna

Itunpeko ikastetxeek 1987ko hezkuntza-itunei buruzko erregelamendua onartzen duen dekretuak dioena beteko balute, beste kuku batek joko liguke. 12. artikuluan honako hau jasota dator: «*Ituntzeko lehentasuna izango dute sozioekonomikoki egoera larrian dauden biztanleriaren beharrak asetzen edo euskalduntzen duten ikastetxeek*». Ikastetxeak, aurreko merezimendu horiek betetzen dituela berresteko, txostena aurkeztu behar du (22., 23. artikulua). Bertan, besteak beste, ikasleen egoera sozioekonomikoa edo euskararen trataera jasoko da. Zoritxarrez, azken horrek ez du ezertarako balio, gaur egun ituntze unibertsala baitago. Planifikazioan sartu eta arautua dagoen ikasle kopuru minimoetara iritsiz gero, gela diruz ituntzen da. Itunak osoak edo partzialak izan daitezke. Bigarren horietan titularrak ikasleei kuotak kobratu diezazkiekete, hori bai, beti ere ezin izango dute osoko itunpean jasoko lukeenaren eta itun partzialagatik jasotako zenbatekoaren arteko aldetik gora kobratu.

Nahiz eta dekretuko 5., 6. eta 32. artikuluen zioen adierazpenean jasota dagoen **doakotasunaren derrigortasuna** berresten duten, badakigu osoko itunak jasotzen dituzten itunpeko ikastetxeek kuotak kobratzen dizkietela familiei, batzuetan borondatezko itxura emanez eta beste batzuetan zuzen-zuzenean derrigortasuna adieraziz.

Erlijio ekintza guztiak **borondatezkoak** izango direla ere jasota dago (37. artikulua).

Ikasleak onartzeko, EAEko ikastetxe publikoentzat ezarrita dagoen araudiari jarraitu beharko dio (41. artikulua).

Langileak kontratatzeko, merezimendua eta gaitasuna izango dute oinarri eta prozeduraren berri lurraldeko tirada handieneko bi egunkarrietan egin behar da (47.-51. artikulua).



Aurreko baldintza horiek guztiak betetzen dituen itunpeko ikastetxerik **ez dago**. Adibiderik jarri beharrik ez dago, buruan dugun herriko itunpeko ikastetxe horri begiratzea nahikoa baita jabetzeko ituna jasotzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituela.

**Ituna betetzen den ala ez kontrolatzea administrazioaren esku dago.** Administrazioak, ituntzera eraman dituen baldintzak betetzen dituen jakiteko, ikastetxeari behar adina informazio eska diezaioke. Informazio hori ez ematea ituna ez betetzea izango litzateke eta bere ondorioak izango litzuzke (61.-64. artikulua).

Itunak jasotzen duena ez betetzea larria izango da **irabazi asmoarekin** egiten denean. Kasu honetan, ituna bertan behera geratuko litzateke (87.-88. artikulua).

**Gela planifikatua egoteaz gain, itunak jasotzeko ikasle kopuru minimoetara iritsi behar da, eta hori ere jasota dago.** Gela bat ituntzeko behar den ikasle kopuru minimoa egoeraren arabera aldatzen da. Adibidez, LHko etapa hasieran (LH1), bi gela ituntzeko, gutxienez 34 matrikula eskatzen dira (1. ERANSKINA, 3A TAULA). Hurrengo ikasturtean, berriz, aurreko urtean LH1en zeuden bi gelak mantentzeko, 28 ikasle matrikulatuta egotea nahikoa izango da (2. ERANSKINA, 3B TAULA). Dagoeneko eratuta dauden bi talde horiek mantentzeko, 26 matrikula nahikoak dira (3. ERANSKINA, 4 TAULA).

Hezkuntzak enpresa pribatuei eskaintzen dien negozioak, alde batetik, eta administrazioak itun ekonomikoak jasotzeko behar diren baldintzak ez betetzeari balekoa emateak, bestetik, azken urteetan itundutako gela kopuruak gora egitea ekarri du.

4. taula. 2007-2008 eta 2018-2019 ikasturte bitartean gela itunduen bilakaera				
	2007-08		2018-19	
	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	1.254		1.238	
Lehen Hezkuntza	2.361		2.547	
Hezk. berezia (LH, irekiak)	202		262	
Hezk. berezia (LH, itxiak)	116		116	
DBH 1. zikloa	810		883	
DBH 2. zikloa	849		853	
Hezk. berezia (DBH, irekiak)	210		219	
Hezk. berezia (ZIG: DBH, itxiak)	21		23	
Batxilergoa	236	341	551	
Lanbide Heziketa erdi maila	38	213	53	212
Lanbide Heziketa goi maila	85	371	143	286
Oinarrizko Lanbide Heziketa			241	
<b>Guztira</b>	<b>6.182</b>	<b>926</b>	<b>7.129</b>	<b>498</b>
<b>Guztira (osoa+partziala)</b>	<b>7.108</b>		<b>7.627</b>	

Itun ekonomikoak honako gastu hauek estaltzen ditu:

1. Irakasle eta ez-irakasleen soldatak eta haien Gizarte Segurantzako kotizazioak.
2. Funtzionamendu-, mantentze- eta kontserbazio-gastuak.
3. Inbertsio errealen birjartze-gastuak.

Dirutan, etapa desberdinetan, moduluak ere desberdinak dira.

5. taula. 2021-2022ko modulu ekonomikoak etapaka			
	2021-22		2021-22
Haur Hezkuntza	69.897 €	Dbh 1. zikloa	101.186 €
Lehen Hezkuntza	73.112 €	Dbh 2. zikloa	113.946 €
		Batxillergoa	116.686 €

6. taula Itunen moduluen bilakaera 2008-2022															
	2008-09	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21	2021-22	Δ2010-22	Δ2008-22
Haur Hezkuntza	58.849 €	63.232 €	62.683 €	62.688 €	62.688 €	62.688 €	63.058 €	64.742 €	65.330 €	65.330 €	67.709 €	69.329 €	69.897 €	% 10,54	% 18,77
Lehen Hezkuntza	61.752 €	66.270 €	65.705 €	65.710 €	65.710 €	65.710 €	66.080 €	67.810 €	68.415 €	68.415 €	70.862 €	72.528 €	73.112 €	% 10,32	% 18,40
DBH 1. zikloa	77.576 €	84.044 €	83.349 €	83.353 €	83.353 €	83.353 €	84.534 €	87.059 €	87.059 €	87.840 €	91.004 €	100.366 €	101.186 €	% 20,40	% 30,43
DBH 2. zikloa	95.551 €	102.665 €	101.295 €	101.296 €	101.296 €	101.296 €	102.574 €	105.595 €	105.595 €	106.546 €	110.390 €	113.026 €	113.946 €	% 10,99	% 19,25
Batxilergoa	98.200 €	104.008 €	105.409 €	104.008 €	104.008 €	104.008 €	105.286 €	105.286 €	105.747 €	107.703 €	113.059 €	115.747 €	116.686 €	% 12,19	% 18,82

Itunpeko ikastetxeek irregularki kobratzen dituzten kuotak justifikatu nahian, askotan entzun dugu itunen bidez jasotzen duten diru kopurua ez dela nahikoa eskola emateko. **STEILAS**ek 2020ko urrian argitaratu zuen txostenak argi eta garbi erakusten digu itunagatik jasotzen duten modulu ekonomikoa eskola publikoak ematen dituen zerbitzuak estaltzeko adina eta gehiago dela.

(<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2704/eaeko-itunpeko-ikastetxeen-finantziazio-publikoa-eta-eskola-orduak-lotu-ditu-STEILASen-ikerketak>).

# Itunpeko ikastetxeen finantzaketa publikoa

2020-2021 ikasturtea

Ikastetxe erlijiosoetan Ikastoletan Bietan berdin\*

## HAUR HEZKUNTZA 2. ZIKLOA

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua irakasleen soldatetarako (1,185 irakasle gelako)

25 eskola-orduri dagokiona\*\*: 56.726,54 €  
Jaurlaritzak ematen diena: 59.239,70 €  
30 eskola-orduri dagokiona: 62.439,78 € / 65.277,95 €

25 ordurako behar dutenaren eta Jaurlaritzatik jasotakoaren arteko aldea\*\*: 2.513,16 €  
30 eskola-ordu emanez falta zaien diru kopurua: -3.200,08 € / -6.038,25 €

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua guztira (dekretu bidez beste proiektu batzuetarako jasotzen duten dirua gehitu beharko litzateke): 68.088,58 €

## LEHEN HEZKUNTZA

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua irakasleen soldatetarako (1,222 irakasle gelako)

25 eskola-orduri dagokiona\*\*: 58.497,75 €  
Jaurlaritzak ematen diena: 60.994,49 €  
30 eskola-orduri dagokiona: 62.439,78 € / 65.277,95 €

25 ordurako behar dutenaren eta Jaurlaritzatik jasotakoaren arteko aldea\*\*: 2.496,74 €  
30 eskola-ordu emanez falta zaien diru kopurua: -1.445,29 € / -4.283,46 €

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua guztira (dekretu bidez beste proiektu batzuetarako jasotzen duten dirua gehitu beharko litzateke): 71.252,50 €

## BIGARREN HEZKUNTZA

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua irakasleen soldatetarako (1,60 irakasle gelako)

30 eskola-orduri dagokiona\*\*: 89.388,87 €  
Jaurlaritzak ematen diena: 97.538,47 €  
32 eskola-orduri dagokiona: 81.262,61 € / 89.388,87 €

30 ordurako behar dutenaren eta Jaurlaritzatik jasotakoaren arteko aldea\*\*\*: 8.149,6 €  
32 eskola-ordu emanez ere duten gainfinantzaketa: 16.275,86 € / 8.149,6 €

Ikasgela bakoitzera Jaurlaritzak bideratzen duen dirua guztira (dekretu bidez beste proiektu batzuetarako jasotzen duten dirua gehitu beharko litzateke): 111.019,40 €

\* Ezberdinak dira ikastolek eta kristau eskolek dituzten lan hitzarmenak, hortik ezberdintasuna hainbat emaitzatan.

\*\* 25 eskola-ordurekin (DBHn 30) ikasgela bakoitzak irakasleetara diru hori bideratzen duela justifikatu behar duten arren, ikastetxe askok soldatetara diru gutxiago bideratzen dutela dio **STEILAS**ek, lan hitzarmena baliatuz. Hortaz, aldea praktikan handiagoa da kasu askotan.



Iturria: 

<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2704/eaeko-itunpeko-ikastetxeen-finantziario-publikoa-eta-eskola-orduak-lotu-ditu-steilasen-ikerketak-batek>

### e) Baimen administratiboa, planifikazioa eta ituna

Hiru horiek lotura zuzena dute. Baimen administratiborik gabe ez dago planifikaziorik, eta planifikaziorik gabe ez dago itunik. Baimen administratiboa izateak ez du ziurtatzen planifikazioan sartzea, eta planifikatua dagoen modulua ez da automatikoki ituntzen, baldintza batzuk bete behar ditu, matrikulazio kopuru nahikoa, alegia. Nahiz eta prozedura horiek araututa eta jasota egon, maiz agertzen dira irregulartasunak eta, lehen jarri dugun moduan, horren aurrean administrazioak ezikusiarena egiten du, edo, zuzenean, irregulartasunaren parte da.

### f) Horretaz gain, itunpeko ikastetxeek beste hainbat diru-sarrera ere izaten dituzte, tartean, irregulartasun zantzua dutenak

1. Kuotak. Ikastetxe pribatuen patronalak, 2020ko uztailen, itunpeko ikastetxeek iruzurrean kobratzen zituzten kuotak salatzeko txosten bat atera zuen. Horrela, adibidez, Claret Askartzak familiei hileroko kuota 305€ kobratzen diela jakin dugu.  
([https://www.cicae.com/wp-content/uploads/2020/11/INFORME-FINAL\\_-RESULTADOS-NACIONAL.CEAPA-CICAE.OLA-V.pdf](https://www.cicae.com/wp-content/uploads/2020/11/INFORME-FINAL_-RESULTADOS-NACIONAL.CEAPA-CICAE.OLA-V.pdf))
2. Udalak. Udaletatik jasotzen dituzten diru-sarrera batzuk dagoeneko itunak estaltzen ditu, hau da, kontzeptu berdinetatik bi diru-sarrera publiko jasotzen ditu ikastetxeak, eta hori ez da legezkoa.
3. Entitate pribatuek sartzten duten dirua.
4. Hezkuntza Sailaren deialdiak. Adibidez, atera berri da 24 milioi euroko HEZKOOPEko deialdi berria.

7. taula 2015eko HEZKOOPE deialdiko partida batzuk

Zk.	Err.	Hiria	Ikastetxea	Diruz laguntzako obra	Diruz laguntzeko zenbatekoa	Diru-laguntza onartua
1	015	Agurain/ Salvatierra	CPEIPS Lautada Ikastola HLBHIP	Eraikina erostea	1.162.000,00 €	398.504,44 €
19	070	Loiu	CPEIPS Lauro Ikastola HLBHIP	Futbol zelaiaren berriak	552.731,12 €	82.204,20 €
35	017	Donostia/ San Sebastián	CPEIPS Ekintza Ikastola	Kirol-instalazio berriak	1.648.114,73 €	565.216,04 €
47	012	Oiartzun	CPEIPS Haurtzaro Ikastola HLBHIP	Suteen aurkako babespena hobetzea	99.836,85 €	34.238,75
48	020	Oiartzun	CPEIPS Haurtzaro Ikastola HLBHIP	Fatxada birgaitzea	454.513,62 €	155.874,09 €
48	024	Oiartzun	CPEIPS Haurtzaro Ikastola HLBHIP	Lehen Hezkuntzako gelen birgaitzea	72.732,00 €	24.943,22 €
53	025	Tolosa	CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP	Eraikin eta lurzorua erostea	2.500.000,00 €	857.367,56 €
54	031	Tolosa	CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP	Eraikin berria	2.174.456,62 €	745.726,51 €

### 3.

## Prozeduran topatutako iruzurrak eta irregulartasunak

Nahiz eta aurrez aipatutako prozedurak zehatzak izan eta irakurketa desberdin batetarako margenek ez eman, Hezkuntza Sailaren utzikeria edo konplizitatea medio, gaur egun iruzurrak eta irregulartasunak ematen dira.

#### i) Baimen administratibo nahikorik gabe planifikatu

1a) puntuan aipatu bezala, ikastetxe bakoitzaren baimen administratibo aginduak zehazten du gehienez ere zenbat gela eta ikasleentzako baimena duen ikastetxeak. Kontuan izan behar dugu baimen administratiboak indarrean izan behar dituztela ikastetxeek ikasleen onarpena hasten den egun horretarako. Hori horrela izan arren, badira baimen administratibo nahikorik izan gabe planifikazioan sartzen dituzten gelak, eta hori irregularra da. Eta ez hori bakarrik, zenbait kasutan baimen administratiboa gelak planifikazioan sartu ondoren lortzen dute. Adibidez, Orereta Ikastola, Haur Hezkuntzan, 240 ikasle jasotzeko baimen administratiboa izanik, 2012 eta 2013 ikasturtean 292 ikasle eskolaratu zituen, baimendutakoa baino 52 gehiago. Zer dugu hemen, administrazioaren partetik kontrol falta, utzikeria edo nahitaezko kolaborazioa? 8. taulan lurralde bakoitzeko adibide bana jarri dugu, ERANSKINEAN, gainontzekoak.

8. taula. Baimen administratibo eta onarpena. Adibideak		
Ikastetxea	Haur Hezkuntza etaparako baimena	Onarpen ikasturtea /baimenez gain HH etapan
<b>Araba</b>		
Presentación de María	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, <b>146</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (150), 2013 (159), 2014 (156), 2015 (154), 2016 (151), 2017 (151), 2018 (151), 2019 (151), 2020 (149), 2021 (148)
<b>Bizkaia</b>		
San Juan Bosco	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, <b>138</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (151), 2013 (151), 2014 (151), 2015 (155), 2016 (152), 2017 (148), 2018 (146), 2019 (146)
<b>Gipuzkoa</b>		
Orereta ikastola 2021-2022 ikasturterarte	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>240</b> ikasposturako edukiera.	2012 (292), 2013 (292), 2014 (285), 2015 (275), 2016 (260), 2017 (271), 2018 (281), 2019 (279), 2020 (282), 2021 (250)

## ii) Auzoan, herrian edo eskualdean eskaintza nahikoa egon arren unitate berriak planifikatzea

Guk nahi baino ohikoagoa da sei urteko planifikazioari aldaketak egitea, nahiz eta inguruko ikastetxe publiko eta itunduen sareko eskaintza nahikoa izan. Erabaki horiek arbitrarioak dira eta, horrela, bi kasu berdin izan arren, batzuetan planifikazioa aldatzen da eta beste batzuetan ez. Susmagarria da lurralde-ordezkaritzetan planifikazioa aldatzeari ezezkua ematea eta, ikastetxeak erreklamazioa egin ondoren, Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzatik pasatzean, Lakuan, baiezkoa ematea. Horrelako erabaki okerrek gehiegizko planifikazioa dakarte, eta ikasleak bere maila sozioekonomikoaren arabera bereizteko tresna bihurtzen da.

Azken lau ikasturte hauetan honako kasu hauek atzeman ditugu, besteak beste:

- 2018-19 ikasturtea: Beasain (HH3), Aresketa(HH3), Jakintza Ordizia (HH3), Bergara (HH3).
- 2019-20: Seber Altube, Gernika (Batx).
- 2020-21: Orio (DBH), Tolosa (Batx), Bergara(LH3), Legazpi (Batx).
- 2021-2022: Munabe (Batx).

Aipatutako bi irregulartasun mota horien adibiderik garbiena **Tolosako Laskorain Ikastolako** Batxilergoa. Laskorain Ikastolak sei urteko plangintzaren aldaketa eskatu zuen 2020-2021 ikasturterako Batxilergoko lehen mailan.

20/21 ikasturterako eskaintza Batxilergoko lehen mailan Tolosan, 395 ikaspostu ziren.

- Orixe BHI: 5 gela (150 ikaspostu).
- Herrikide Eskolapioak: 3 gela (105 ikaspostu).
- Laskorain ikastola: 4 gela (140 ikaspostu).
- Guztira: 12 gela (395 ikaspostu).

Laskorainek sei urteko plangintzari aldaketa egitea eskatu zuen, Batxilergoko lehen mailan talde bat gehiago jartzeko, hain zuzen, eta lurralde-ordezkaritzatik ezezkua jaso zuen, Tolosako eskaintza nahikoa zelako. Erreklamazioa sartu eta Lakuako Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzatik pasa ondoren, bosgarren gela onartu zitzairen. Horrela, planifikazio berrian bost gela izango zituen BATX1en, 175 ikaspostu. Gehikuntza horrekin, Tolosak guztira 430 ikaspostu izango zituen Batxilergoko lehen mailan.

Ikasturte horretan, Tolosako hiru ikastetxeak kontuan izanda, 307 ikasle matrikulatu ziren Batxilergoko lehen mailan, beraz, hasieran zegoen eskaintza nahikoa zen eta erabaki arbitrario eta oker horrek 123 doako ikaspostuko soberakina sortu zuen.

Aldaketaren ondoren Laskorain Ikastolak 20-21 ikasturterako bost gela izango zituen planifikatuak BATX1en eta lau gela BATX2n, guztira bederatzita gela, eta, honen ondorioz, hurrengo ikasturterako, 21-22rako 10 gela planifikatuak (5 BATX1en eta 5 BATX2n). Erabaki arbitrario hau gutxi bazen, planifikazio berria onartu zenean, Laskorain Ikastolak Batxilergorako zuen baimen administratiboa zortzi talderentzat zela jakin dugu. Zuriketa ondoren egin zuten eta batxilergoan 10 gelentzako baimen administratiboa 2021eko otsailak 17an lortu zuten, sei urteko planifikazioaren aldaketaren ondoren.

### iii) Onarpen dekretuak edo eskola mapak aintzat hartzen ez dituzten planifikazioak

Adibide argiena, Loiu (2019-2020 ikasturtea). Azken onarpen dekretuak, ikasle orori plaza publikoa **etxetik gertu** bermatuko zaiela ezartzen du. Loiu herrian 2 394 biztanle bizi dira eta gaur egun bi urteko gelan matrikulatzeko 13 haur daude. Loiun bost ikastetxe pribatu daude eta 6 458 ikasle. Beraien bizilekutik garraiatuak diren ikasle horiei, onarpen-dekretua edo eskola-mapa aintzat hartu gabe, diru publikoz hornitzen diren ikaspostuak eman zaizkie.

Guztira 211 itun (20M€ inguru). Lotsagarria eta salagarria.

9. taula. Loiu itunpeko ikastetxeen matrikulazioa 2019-2020																			
	HH 0	HH 1	HH 2	HH 3	HH 4	HH 5	LH 1	LH 2	LH 3	LH 4	LH 5	LH 6	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	Batx 1	Batx 2	Guztira
Ayalde HLBHIP	5	10	23	45	59	59	64	72	101	107	104	101	108	96	88	89	89	62	1282
Lauro Ikastola HLBHIP				125	127	129	126	130	135	128	131	132	153	146	146	136	122	111	1.977
Sra. de la Merced HLBHIP			17	19	20	24	20	36	47	45	50	51	59	53	43	54	42	40	620
Padre Andrés Urdaneta HLBHIP				100	101	101	154	154	160	149	160	160	156	150	150	139	138	101	2.073
Munabe LBHIP							27	38	39	42	47	52	39	46	49	49	45	33	506
<b>Guztira Pribatuak</b>	<b>5</b>	<b>10</b>	<b>40</b>	<b>289</b>	<b>307</b>	<b>313</b>	<b>391</b>	<b>430</b>	<b>482</b>	<b>471</b>	<b>492</b>	<b>496</b>	<b>515</b>	<b>491</b>	<b>476</b>	<b>467</b>	<b>436</b>	<b>347</b>	<b>6.458</b>

### iv) Eraikin batean hainbat ikastetxe

Legez, eraikin berean ez dago ikastetxe bat baino gehiago jartzeko aukerarik.

**2. Aurreko paragrafoan aipatutako ikastetxeek instalazioei buruzko baldintza hauek bete beharko dituzte gutxienez:**

**a) Eskola-erabilerarako baino ez diren eraikin independenteetan egotea, baina bertako instalazioak eskola- orduetatik kanpo erabili ahal izango dira hezkuntza-, kultura- edo kirol- arloko beste jarduera batzuk egiteko.**

132/2010 EDa, otsailaren 12koa, HHko bigarren zikloko, LHko eta BHko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxienerako baldintzak ezartzen dituena.

Hala ere egiten da eta ez da ezer pasatzen. Adibiderik argiena Donostiako Karmelo ikastetxea da, non eraikin berean, Karmelo ikastetxeaz gain, Larrun Frantses Lizeoa eta Tilin Talan haur-eskola dauden. Hiru ikastetxe eraikin berean. Aipatu beharra dago Karmelo Ikastetxea, 2019 urte arte Karmeldar Ahizpa Misiolariek zuzentzen zutena, gaur egun Scientia School enpresak kudeatzen duela. Enpresa horrek hainbat ikastetxe ditu, hiru Madrilen eta beste bat Sevillan. Enpresa hau irabazi asmorik gabekoa izango da, ezta?



**v) Ituna jasotzeko ikasle nahikoa ez duten gelatan, patronal bereko beste ikastetxe bateko ikasleak matrikulatu**

Adibide bat jartzea da garbiena. Demagun LHko lehen mailan ikastetxe batek bi gela dituela itunduta. Hurrengo ikasturtean matrikulazioa jaitsi eta 26 ikasle matrikulatzen dira, bi gelak ituntzeko behar diren 28 matrikulatara iritsi gabe (eranskineko 3B taula). Patronal bereko eskualdeko beste ikastetxe batean, LHko maila berean, 35 ikasle matrikulatu dira, bigarren gela itundua mantentzeko baino zazpi ikasle gehiago. Bigarren ikastetxeko bi ikasle lehenengoan matrikulatzen dituzte, nahiz eta eskola-zerbitzua bigarrenengoan jasoko duten. Lehenengo ikastetxeak, bi ikasle gehigarri horiei esker, 28 matrikuletara iritsiko dira eta bi gela itundu izaten jarraituko dute.

Zoritxarrez, iruzur hori ohikoa da. Hori ikuskarien bidez kontrolatzeko ardura administrazioarena da, baina beste kasuetan bezala, beste aldera begiratzen du.

**vi) Onarpenean, barematuak izan diren ikasleak, bigarren aukerara joan beharrean, gela pribatuetan jasotzea**

2377/1985 Errege Dekretuak garbi jasotzen du ikastetxeak ez lukeela aukerarik izango eskola-posturik eskaintzeko itunetik kanpo, ezin baitira ikastetxe eta hezkuntza-maila berean bateratu itunpeko eskola-unitateak eta itundu gabeko beste batzuk. Hortaz, Ikastetxe pribatu batek Itundutako ikastetxe izateko dekretua bete behar du, bere eskubide eta betebeharrak guztiekin, eta ezin ditu bi matrikulazio ereduak (itunpekoa eta pribatua) nahasi komeni zaion bezala. Kasu irregular horiek gertatzen dira Irungo Erain ikastetxeko LH4an, adibidez.



## 4.

# Gaur egungo planifikazioa (2016-2022). Itunpekoen eskaintza puztua

---

Datozen urteetan jaiotza-tasa ikaragarri jaitsiko da. Horrek gelak ixtea ekarriko du, eta lanpostuak galtzea. Baina zein egoeratan iritsiko da eskola publikoa horri aurre egin ahal izateko?

2011 urtean EAEn 21 155 haur jaiotzetik, 2020ean 14 747 jaiotza izatera jaitsi gara, hau da, % 30,3 jaiotza gutxiago. Haur gutxiago = gela gutxiago = irakasle gutxiago. Baina non itxiko dira gelak? Pribatua ala publikoan?

Pribatuko planifikazioa sei urtetarako da eta publikakoa, berriz, urtero berriztu behar da. Pribatuko sei urteko planifikazio berria, 2022-2028, orain egosten ari da. Orain duten eskaintza mantenduko zaie?

Pribatuko ikastetxeak posizio onean iristen dira, orain dituzten eskaintzak ikaragarri puztuta dituztelako. Portugaleten, HH3ko hezkuntza eskaintza pribatua 250 ikaspostukoa da eta azken urtean soilik 123 matrikulatu zaizkie: 127 ikasposturen soberakina. Portugaleten 2020an jaiotakoak eta datorren ikasturtean bi urteko gelan sartuko direnak 237 ikasle dira, eta pribatuaren eskaintzak soilik eskaera estaliko luke. Garbi dago pribatua publikoaren «subsidiarioa» izatetik publikoa pribatuaren «subsidiarioa» izatera pasatu dela, hau da, pribatuak mugarik ez dauka eta ahalik eta ikasle gehien jaso ditzake, eta, ondorioz «soberakinak» ikastetxe publikoetarako izango dira, besterik ez.

Hemen lurralde bakoitzeko adibide bana, eranskinetan gehiago.

EAE	Pribatua matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatua HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
Gasteiz	989	1.425	1.191	1.569
Portugalete	123	250	132	160
Zarautz	91	175	53	54

### 2022-2028 planifikazioa. Linbo juridikoa

Onarpen prozesuak martxan jartzera doazenean, 2022-2028ko sei urteko planifikaziorik ez dago. 2012-2016 eta 2016-2022 ikasturteetako planifikazioetan egoera berdinean egon ginen. Orduan, zeren baitan egingo dira onarpen prozesuak planifikaziorik gabe?

## Hezkuntza itunen berritzea eta aldatzea:

Estatu mailako LODE legetik eratorritako 2377/1985eko itunen dekretuak arautzen ditu hezkuntza-itunak.

EAEEn 2016-2017 eta 2021-2022 ikasturte bitarteko itunpekoen eskaintza eta itundu beharreko unitateen plangintza amaituta, eskaintza- ituntze berria 2022-23 eta 2027-28 ikasturte bitartekoa ebaztekoa da saila.

Aurreko sei urteko plangintzaren deialdi eta ebazpen prozesua horrela ebatzi zen:

1. 2016-2017 ikasturteko onarpenerako eskaintza egin zen ikastetxe pribatuentzat.
2. Ikasleen onarpena egin zen.
3. 2016ko apirilean, 2016-2022 ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzeko eta berriak izenpetzeko, eta 2016-2017 ikasturtean itundu beharreko taldeak zehazteko dei egiten zuena argitaratu zen.
4. Azkenik, 2016ko irailean, apirilko agindua ebatzi zen, 2016 eta 2022 ikasturte bitarteko planifikazio (eskaintza) ebazten zuena.

Hau ez dator bat 2377/1985 Dekretuak jasotzen duenarekin. Izan ere, dekretuko V. tituluak ezartzen du, «itunen berritzea eta aldatzea» gauzatzeko, administrazioak urtarrilean, onarpen prozesu aurretik (!), deialdia egingo diela ituna berritzeko asmoa duten ikastetxe pribatuei.

Beraz, prozesu administratiboan ordena ez da betetzen, eta ordena ez betetzeak, hainbat zalantza juridiko-normatibo plantetazten dizkigu:

- Deialdirik egin gabe, aurrez hitzartu gabe, ikastetxe pribatuen eskaintza eta onarpena egin daiteke?

Aipatu behar da, onarpen dekretuek, bai 35/2008 eta 1/2018koak, Ikastetxea aukeratzeko eskubidea jasotzen dutela, baina eskubide horrek Hezkuntza Sailaren planifikazioaren muga duela.

- Beraz, 2016-17 ikasturteko eskaintza, onarpena, deialdia eta ebazpena, adierazitako orden honetan egin izanak zein ondorio izan ditu itunpeko ikaspostuen planifikazioan?

Hona hemen beste adibide bat, Oñatin, 2020 urtean, 71 haur jai ziren. Haur horiek bi urteko gelan matrikulatuko dira.

2016-2022 Oñatiko bi urteko gelen planifikazioa horrela zegoen:

Txantxiku Ikastola	75 ikaspostu
Elkar Hezi Kristau eskola	50 ikaspostu
Urgain eskola publikoa	36 ikaspostu

2020-2021 urteko azken matrikulazioaren zifrak honako hauek izan ziren:

Txantxiku Ikastola	→ 46 ikaspostu
Elkar Hezi Kristau eskola	→ 9 ikaspostu
Urgain eskola publikoa	→ 34 ikaspostu

2022-2028 planifikaziorik gabe eta azken matrikulazio zenbakiak eta jaiotza-tasa ikusita, Elkar Hezik eta Txantxiku ikastolak 50 eta 75 ikaspostu eskainiko dituzte onarpen prozesuan? Zein planifikazioren baitan? Linbo juridiko bat daukagu aurrean. Onarpen-prozesuko ikaspostuak planifikazio baten baitan banatzen dira, egin gabe dagoen planifikazio baten baitan. Nola askatu korapiloa?

## 5.

### Haur-eskolak, pribatizazio basatiaren adibide

---

*«Zure negozioarekin hasi nahi baduzu eta egiten duzunarekin gozatu nahi baduzu, hezkuntza sentikortasuna badaukazu, Txanogorritxu Haurreskola zure haur-eskola frankizia da.»*

Ez dute ezer ezkututzen, frankizia bat dira eta haur-eskolekin negozioa egiteko jaio dira. Hori zilegi irudituko litzaiguke negozioa % 100ean pribatua izango balitz, baina ez da hala.

Kontziliazioaren aitzakipean, 2002 urtean hasi zen Eusko Jaurlaritzak haur-eskola pribatuak diruz hornitzen. Hori horrela, 0-3 etapa eskaintzen ez zuten ikastetxeak adin horietako haurak eskolatzen hasi ziren, besteak beste, ume umetatik «bezeroak» lotzeko aukera ematen zitzaielako, eta inongo hezkuntza-ibilbiderik ez duten haurtzaindegientzat ere negozioa egiteko aukera aparta zen. Lehenengo deialdiko dirulaguntza, 2002-2003koa, 5 726 484 eurokoa izan zen, eta 2003-2004an, 10 454 400 eurokoa. Ordutik hona 0-3 pribatuari eman zaion dirulaguntza esponentzialki igo da, 2018-2019 urtean 26 595 744 eurotara iritsi arte. Negozio errentagarria da, eta, gainera, diru publikoz lagunduta<sup>1</sup>.

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2003ko uztailaren 29an egindako bilkuran, Haurreskolak Partzuergoa eratzeke lehen pausoa eman zuen. Udal-haurtzaindegiei Haurreskolak Partzuergoan sartzeko aukera eman zitzaien eta, horrela, 0-2 urte bitarteko haurak artatzeko sare publiko indartsu bat sortu nahi zen. Bazirudien, nahiz eta haurtzaindegi pribatuak diruz hornitzen jarraitu, Eusko Jaurlaritzak Haurreskolak Partzuergoaren alde apustu argia egin zuela.

Baina, zein da gaur egungo egoera? Sare pribatuan, beteta dagoen haur-plaza bakoitzagatik, Hezkuntza Sailak plaza horren kostuaren % 60 finantzatzen duela. Hori dela eta, zentro pribatu horietako batzuen kuotak sare publikokoak baino merkeagoak izatera irits daitezke. Bitartean, zerbitzu publikoa den Haurreskolak Partzuergoak eskaintzen dituen milaka plaza hutsik daude. Nola liteke, zerbitzu publikoan plaza hutsak izanda, irabazi asmo garbia duten haurtzaindegi pribatuak diruz hornitzea? Diru publikoaren xahuketa nabarmena da. Zerbitzu pribatu baten aldeko apustu garbia. Erabaki hori defendatzeko erabiltzen duten argudio nagusia familien erabakitzeko eskubidean datza.

Txanogorritxu haur-eskola frankiziaren kasua aipagarria da. Leioan zabaldu zuten 2013an lehen haurtzaindegia eta ordutik hona, beste 10 zabaldu dituzte, guztiak Bizkaian. 2013tik gaur egunera, frankizia honek 6 595 853 euro jaso ditu diru-kutxa publikotik. Aurreikusitako inbertsioa berreskuratzeko epea 42 hilabete izango direla garbi uzten dute beraien webgunean, negozio hutsa. Zilegi al da era horrelako haurtzaindegi-frankiziak diru publikoz hornitzea?

---

<sup>1</sup> <https://steilas.eus/wp-content/uploads/2021/09/0-3-zikloaren-dirulaguntzak-agerian.pdf>

10. taula. Txanogorritxu frankiziaren diru laguntzen bilakaera

	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21	2013-20
Barakaldo	–	70.198	72.229	88.322	110.121	112.536	114.271	122.301	689.979
BEC	–	65.039	97.530	99.298	105.087	110.983	115.215	110.273	703.424
Basauri	–	–	–	–	–	83.237	116.823	102.068	302.128
Basurto	–	–	–	–	110.121	115.866	121.846	133.557	481.389
Miribilla	–	96.917	98.113	94.436	106.974	103.271	100.319	108.243	710.273
P. Euskadi	–	–	–	–	132.774	143.167	153.882	157.461	587.284
Sarriko	–	99.284	126.062	128.590	136.550	145.831	151.764	157.548	945.628
Durango	–	–	31.132	54.317	41.991	26.138	30.326	17.979	201.882
Leioa	142.962	167.791	163.389	156.381	159.840	174.789	105.939	89.709	1.160.802
Mungia	–	19.062	34.304	66.326	69.560	76.017	73.541	83.392	422.203
Sopela	–	–	–	73.229	72.946	79.574	78.108	87.005	390.862
<b>Guztira</b>	<b>142.962</b>	<b>518.292</b>	<b>622.758</b>	<b>762.900</b>	<b>1.045.963</b>	<b>1.171.408</b>	<b>1.162.033</b>	<b>1.169.536</b>	<b>6.595.853</b>

0-18 eskaintza duten ikastetxeek haur-eskolak baliatzen dituzte ikasleen onarpen gisa, nahiz eta legez kanpokoa izan. Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Eskolak arautzen dituen 2002ko dekretuak argi eta garbi jasotzen du ikasleak onartzeko orduan haur-eskolak ezin direla haur hezkuntzako zentroetara eta/edo lehen-hezkuntzako zentroetara atxiki, eta haur Hezkuntzako bigarren ziklora sartzeko prozedura egokia ezarri beharko dela. Hau da, ikasle horiek, gainerakoek bezala, onarpen-prozesu orokorrean parte hartu beharko dute, eta, barematu ondoren ikastetxe horretan lekurik ez badute, beste zentro batera bideratuko dira. Ez da legezkoa, baina egiten da. Badakite kasu horietan Hezkuntza Saila lagun izango dutela eta irregulartasun horiek zurriz lagunduko diela, Amurrión (Arasketa), Ordizian (Jakintza) edo Bergaran (Aranzadi) egin duten moduan.

Gaur egun, argi dago hezkuntza-eskaintzaren planifikazioa itunpeko ikastetxeen mesederako egin dagoela, eta Eskola Publikoa subsidiarioa bihurtu dela. Hezkuntza sailburuak argi eta garbi adierazi zuen hezkuntza-sistemaren aldaketa baten aurrean itunpeko ikastetxeek lasai egon beharko luketela. Beraz, jaiotza-tasaren jaitzieraren aurrean eta planifikazioan itunpeko ikastetxeek duten abantaila ikusita, hezkuntzaren pribatizazio garbi baten aurrean egon gaitzke. Ezer egin ezean, eskola publikoetako lanpostu asko kolokan aurki daitezke.

**HEZKUNTZA EZ DAGO SALGAI!**

# Eranskinak

## 1. Taldeak eratzeko ikasle kopuruak itunpeko ikastetxe pribatuetan

### 3A – Etapa bakoitzaren hasieran taldeak eratzeko behar den ikasle-kopurua

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	
talde 1	17	talde 1	17	talde 1	17
2 talde	34	2 talde	34	2 talde	34
3 talde	59	3 talde	59	3 talde	64
4 talde	84	4 talde	84	4 talde	94
5 talde	109	5 talde	109	5 talde	124
6 talde	134	6 talde	134	6 talde	154
Batxilergoa		Oinarrizko Lanbide Heziketa		Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak	
talde 1	18	talde 1	12	talde 1	12
2 talde	36	2 talde	24	2 talde	26
3 talde	71	3 talde	39	3 talde	51
4 talde	106	4 talde	54	4 talde	76
5 talde	141	5 talde	69	5 talde	101
6 talde	176	6 talde	84	6 talde	126

### 3B – Aurreko ikasturteko taldeak mantentzeko beharrezko ikasle-kopurua, etapa bakoitzean

Talde-kopurua	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Oinarrizko Lanbide Hezkuntza
talde 1	17	17	17	12
2 talde	28	28	34	24
3 talde	45	45	51	39
4 talde	68	68	68	54
5 talde	85	85	93	69
6 talde	102	102	118	84
7 talde	125	125	143	99
Talde gehigarri bakoitzeko	+ 23	+ 23	+ 25	+ 15

#### 4 – Ondorengo ikasturteetan eratutako taldeak mantendu ahal izateko ikasle-kopurua

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	
talde 1	11	talde 1	11	talde 1	17
2 talde	26	2 talde	26	2 talde	31
3 talde	51	3 talde	51	3 talde	61
4 talde	76	4 talde	76	4 talde	91
5 talde	101	5 talde	101	5 talde	121
6 talde	126	6 talde	126	6 talde	151

Batxilergoa		Oinarrizko Lanbide Heziketa		Erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloak	
talde 1	17	talde 1	10	talde 1	10
2 talde	36	2 talde	16	2 talde	26
3 talde	71	3 talde	31	3 talde	51
4 talde	106	4 talde	46	4 talde	76
5 talde	141	5 talde	61	5 talde	101
6 talde	176	6 talde	76	6 talde	126

## 2. Baimen administratibo nahikorik gabe gehiegizko planifikazioa

Araba		
Ikastetxea	Haur Hezkuntza etaparako baimena	Onarpen ikasturtea /Baimenez gain HH etapan
Carmelitas Sagrado Corazon	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostu.	2013 (231), 2014 (237), 2015 (243), 2016 (232), 2017 (232), 2018 (227), 2019 (227)
Niño Jesus Ikastetxea Gasteiz	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.	2013 (153), 2014 (158), 2015 (162), 2016 (155), 2017 (154)
Armentia Ikastola	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostutarako edukiera.	2012 (229), 2013 (235), 2014 (235), 2015 (230), 2016 (226), 2017 (228), 2019 (227), 2020 (226), 2021 (228)
Urkide Ikastetxea Gasteiz	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostutarako edukiera.	2012 (237), 2013 (242), 2014 (243), 2015 (242), 2016 (241), 2017 (233), 2018 (229), 2019 (231), 2020 (227), 2021 (226)
Pedagógica San Prudencio Gasteiz	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 10 unitate, 250 ikaspostutarako edukiera.	2012 (254)
San Viator Ikastetxea Gasteiz	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostutarako edukiera.	2012 (230), 2013 (231), 2014 (226), 2015 (229), 2016 (227), 2019 (226)
Presentación de María	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 146 ikaspostutarako edukiera.	2012 (150), 2013 (159), 2014 (156), 2015 (154), 2016 (151), 2017 (151), 2018 (151), 2019 (151), 2020 (149), 2021 (148)
Paula Montal Ikastetxea Gasteiz	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 3 unitate, 75 ikaspostutarako edukiera.	2014 (76), 2015 (79), 2016 (79), 2017 (76), 2018 (76)
Olabide	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, 300 ikaspostutarako edukiera.	2012 (307), 2013 (309), 2014 (307), 2015 (305), 2020 (302)
Sagrado Corazón	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostutarako edukiera.	2012 (229), 2013 (236), 2014 (236), 2015 (236)
Santa Maria	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, 300 ikaspostutarako edukiera.	2012 (306), 2013 (310), 2014 (309), 2015 (314), 2016 (305)
Calasanz	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.	2014 (152), 2015 (156)



## Bizkaia

Ikastetxea	Haur Hezkuntza etaparako baimena	Onarpen ikasturtea /Baimenez gain HH etapan
Leioa Claret	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 18 unitate, <b>450</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (457), 2013 (456), 2014 (460)
Loiu Andres Urdaneta	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>300</b> ikaspostutarako edukiera.	2013 (304), 2014 (304), 2016 (306), 2017 (302), 2018 (304), 2019 (303), 2020 (302)
Loiu Lauro	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 15 unitate, <b>375</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (376), 2014 (380), 2015 (383), 2016 (385), 2017 (377), 2018 (381), 2019 (400), 2020 (381), 2021 (377), 2022 (379)
Urretxindorra Ikastola Bilbo	Haur Hezkuntzako 2. zikloan: 6 unitate, <b>150</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (157), 2013 (156), 2014 (155), 2015 (178)
Urretxindorra Ikastola Bilbo	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 8 unitate, <b>195</b> ikaspostutarako edukiera.	2016 (197), 2017 (219)
Urretxindorra Ikastola Bilbo	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 217 ikaspostutarako edukiera.	2018 (220), 2019 (220), 2020 (225), 2021 (225)
Begoñako Andra Mari Sestao	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, <b>150</b> ikaspostutarako edukiera.	2014 (153), 2015 (151), 2016 (154), 2017 (151), 2019 (152), 2020 (155), 2021 (153)
San Nikolas Ikastola Getxo	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, <b>225</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (227), 2013 (227), 2017 (229), 2018 (226), 2019 (230), 2020 (227), 2021 (227)
Begoñazpi Ikastola Bilbo	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>300</b> ikaspostuko edukiera.	2012 (314), 2013 (317), 2014 (321), 2015 (323), 2016 (314), 2017 (308), 2018 (301), 2019 (304), 2020 (306), 2021 (303)
Ander Deuna Ikastetxea Sopela	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, <b>150</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (154), 2013 (154), 2015 (152), 2016 (154), 2017 (151), 2018 (153), 2019 (151), 2020 (153)
Vizcaya Ikastetxea Zamudio	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>300</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (305), 2013 (309), 2014 (315), 2015 (313), 2016 (309), 2017 (305), 2018 (310), 2019 (311), 2020 (313), 2021(308), 2022 (314)
Asti Leku Portugalete	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>300</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (308), 2013 (306), 2014 (304), 2015 (303)
La Salle, Bilbo	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, <b>225</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (232), 2013 (227), 2014 (230), 2015 (229), 2016 (231), 2017 (227), 2018 (226), 2019 (226), 2021 (227)
Salesianos Deusto	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, <b>150</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (152), 2013 (154), 2014 (153), 2018 (158), 2019 (158), 2020 (152), 2021 (152)

Ikastetxea	Haur Hezkuntza etaparako baimena	Onarpen ikasturtea /Baimenez gain HH etapan
Trueba de Archanda	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.	2012 (151), 2013 (154), 2014 (154), 2015 (158), 2016 (152), 2017 (156), 2018 (151), 2019 (151), 2020 (152)
Seber Altube Ikastola Gernika	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.	2012 (151), 2013 (154), 2014 (161), 2015 (154), 2016 (155), 2018 (151), 2019 (151), 2020 (153)
Fundacion Escuelas Ventades	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.	2012 (154), 2013 (152), 2014 (158), 2015 (159), 2016 (158), 2017 (155), 2018 (156), 2019 (156)
Berrio Otxoa Ikastetxea	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, 300 ikaspostutarako edukiera.	2012 (304), 2013 (304), 2014 (302), 2015 (301), 2016 (303)
Maristas-San Miguel Ikastetxea	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate 125 ikaspostutarako edukieraz.	2012 (144), 2013 (143), 2014 (135)
Abusu Ikastola	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.	2013 (151), 2014 (154), 2015 (154), 2016 (153), 2017 (153)
Amor Misericordioso Ikastetxea	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 3 unitate, 75 ikaspostutarako edukiera.	2013 (78), 2014 (78), 2015 (79)
San Juan Bosco	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 138 ikaspostutarako edukiera.	2012 (151), 2013 (151), 2014 (151), 2015 (155), 2016 (152), 2017 (148), 2018 (146), 2019 (146)
Artxandape Ikastola	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostutarako edukiera.	2012 (156), 2013 (158), 2014 (161), 2015 (162), 2016 (156), 2017 (157), 2018 (158), 2019 (158), 2020 (155), 2021
Lauaxeta Ikastola	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 9 unitate, 225 ikaspostutarako edukiera.	2013 (235), 2014 (238), 2015 (237), 2016 (231), 2017 (230), 2018 (226), 2019 (226)
Eskolabarri Ikastetxea Ermua	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 3 unitate 52 ikaspostutarako edukieraz.	2012 (67), 2013 (70), 2014 (74), 2015 (73), 2016 (76), 2017 (74), 2018 (75), 2019 (77), 2020 (77), 2021(73), 2022 (65)

## Gipuzkoa

Ikastetxea	Haur Hezkuntza etaparako baimena	Onarpen ikasturtea /Baimenez gain HH etapan
Axular Lizeoa Donostia	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate <b>150</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (156), 2013 (160), 2014 (160), 2015 (161), 2016 (161), 2017 (163), 2018 (163), 2019 (163), 2020 (159), 2021 (153), 2022 (152)
La Salle Isasi Eibar	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate <b>136</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (146), 2013 (152), 2014 (152), 2015 (152), 2016 (149), 2017 (155), 2018 (153), 2019 (152), 2020 (151), 2021 (151)
Laskorain Ikastola Tolosa	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>300</b> ikaspostutarako edukiera.	2013 (312), 2014 (301)
El Pilar Ikastetxea, Irun	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate <b>150</b> ikaspostutarako edukieraz.	2013 (151), 2014 (151)
Eskibel Ikastetxea	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 3 unitate, <b>75</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (78), 2013 (85), 2014 (88), 2015 (87), 2016 (78), 2021 (76)
Orereta Ikastola	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>240</b> ikasposturako edukiera.	2012 (292), 2013 (292), 2014 (285), 2015 (275), 2016 (260), 2017 (271), 2018 (281), 2019 (279), 2020 (282), 2021 (250)
Sagrado Corazon Errenteria	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate <b>150</b> ikaspostutarako edukieraz.	2012 (151), 2013 (152), 2014 (154), 2015 (158), 2019 (153)
Santo Tomas Lizeoa	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>300</b> ikaspostuko edukieraz.	2012 (301), 2013 (301), 2014 (302), 2016 (303), 2017 (302), 2020 (301)
San Ignacio de Loyola	Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 12 unitate, <b>242</b> ikaspostutarako edukiera.	2012 (297), 2013 (285), 2014 (280), 2015 (265), 2016 (259), 2017 (262), 2018 (249), 2019 (249), 2020 (261), 2021 (250)

### 3. Planifikazio puztuak

Araba / Herriak	Pribatuan matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatuan HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
Amurrio	53	75	26	54
Iruraiz Gauna	3	25	0	0
Labastida	18	25	13	18
La Puebla de la Barca	10	25	0	0
Laudio	68	100	57	90
Oyon	16	25	23	36
Agurain	12	25	40	46

Gasteiz eragin eremuka	Pribatuan matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatuan HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
Gasteiz 1	331	425	219	240
Gasteiz 2	103	125	243	378
Gasteiz 3	243	350	219	297
Gasteiz 4	132	225	351	410
Araba guztira	989	1.425	1.191	1.569

Bizkaia / Herriak	Pribatuan matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatuan HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
Amorebieta	149	200	55	54
Balmaseda	27	50	36	36
Barakaldo	313	450	278	349
Basauri	52	100	140	162
Bermeo	78	100	39	36
Bilbo	888	1.637	879	1.006
Durango	173	250	63	72
Elorrio	28	50	35	36
Erandio	24	50	86	90
Ermua	38	50	50	72
Galdakao	45	50	121	154
Gernika	90	150	46	54
Getxo	132	250	178	214
Güeñes	27	50	31	36
Leioa	320	400	95	116
Lekeitio	34	50	27	36
Loiu	258	375	0	0
Markiña	23	25	39	54
Mungia	74	125	58	72
Muskiz	37	50	31	50
Ondarroa	19	50	38	46
Ortuella	35	50	17	18
Portugalete	123	250	132	160
Santurtzi	145	225	122	108
Sestao	54	75	79	80
Sopela	38	50	63	72
Zalla	23	50	37	54

Bilbo	Pribatuan matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatuan HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
Publikoa				
Arangoiti HLHI			17	18
Artatse HLHI			15	18
Basurto HLHI			35	36
Birjinetxe HLHI			13	18
Cervantes HLHI			48	48
Deusto HLHI			16	18
Elejabarri HLHI			12	18
Gabriel Aresti HLHI			30	36
Indautxuko Eskola HLHI			55	54
J. Orbegozo Gorostidi HLHI			5	13
Intxixu Ikastola HLHI			36	36
Iruarteta HLHI			50	54
Juan M. Sánchez Marcos HLHI			36	36
Luis Briñas Santutxu HLHI			52	54
Maestra Isabel Gallego Gorria HLHI			36	36
Maestro Garcia Rivero HLHI			36	36
Mina del Morro HLHI			0	0
Miribilla HLHI			12	18
Mujika HLHI			14	23
Otxarkoaga HLHI			9	6
Pío Baroja HLHI			9	9
San Inazio/San Ignacio HLHI			31	36
Sra. Vda. de Epalza HLHI			36	46
Tomás Camacho HLHI			3	15
Txurdinaga HLHI			17	18
Uribarri HLHI			15	18
Zamakola-Juan Delmas HLHI			34	36
Zazpilanda HLHI			24	36
Zorrotza Fray Juan HLHI			21	36
Zurbaran HLHI			27	36
Zurbaranbarri HLHI			11	18
Deustuko Ikastola IPI			35	36
Karmelo Ikastola IPI			53	54
CPI Pagasarribide			36	36

Bilbo	Pribatuan matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatuan HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
<b>Pribatua</b>				
<b>Kristau eskola</b>				
San Jose-Urdaneta HHIP	46	50		
Amor Misericordioso HLBHIP	11	50		
Ángeles Custodios HLBHIP	23	50		
Berrio-Otxoa HLBHIP	80	100		
Calasancio HLBHIP	65	75		
El Ave María HLBHIP	21	25		
El Salvador HLBHIP	51	75		
Esclavas SC - Fátima HLBHIP	19	50		
Hijas de la Caridad HLBHIP	31	50		
Ikasbide HLBHIP	30	50		
Jesuitinas Bilbao La Inmaculada HLBHIP	10	50		
Jesús María HLBHIP	11	50		
La Salle Bilbao HLBHIP	63	75		
Madre de Dios HLBHIP	29	50		
Ntra. Sra. Del Carmen HLBHIP	34	50		
Ntra. Sra. Del Pilar HLBHIP	31	50		
Pureza de María HLBHIP	45	75		
Sagrado Corazón HLBHIP	9	25		
Salesianos Deusto HLBHIP	49	50		
San Pedro Apostol HLBHIP	12	25		
Trueba De Artxanda HLBHIP	40	50		
<b>Ikastolen elkartea</b>				
Abusu Ikastola HLBHIP	50	50		
Kirikiño Ikastola HLBHIP	52	75		
Urretxindorra Ikastola HLBHIP	76	75		
<b>Eib Elizbarrutia</b>				
Artxandape Ikastola HLBHIP	42	50		
Begoñazpi Ikastola HLBHIP	96	100		
Iparragirre Ikastola HHIP	113	125		
<b>Opus Dei</b>				
Humedi HHIP	16	37		
<b>Bilbo Guztira</b>	<b>1.155</b>	<b>1.637</b>	<b>879</b>	<b>1.006</b>


Gipuzkoa / Herriak	Pribatua matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatua HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
Andoain	76	125	16	18
Anoeta	25	25	0	0
Aretxabaleta	26	50	26	36
Arrasate	87	150	42	54
Azkoitia	25	50	57	72
Azpeitia	74	125	53	54
Beasain	63	75	51	54
Bergara	73	100	28	38
Donostia	863	1.225	526	668
Eibar	71	75	125	154
Elgoibar	53	75	27	50
Errenteria	126	155	150	154
Eskoriatza	18	25	14	18
Hernani	6	25	122	160
Hondarribia	37	75	51	72
Ibarra	34	50	0	0
Irun	145	175	246	284
Irura	12	25	0	0
Lazkao	54	75	0	0
Legazpia	24	50	24	36
Lezo	18	25	32	69
Mutriku	16	25	30	46
Oiartzun	51	75	22	18
Oñati	55	125	34	36
Ordizia	50	50	60	69
Orio	42	75	9	18
Pasaia	52	100	24	36
Tolosa	118	175	42	54
Urnietan	8	25	28	36
Usurbil	26	50	0	0
Villabona	28	50	18	18
Zarautz	91	175	53	54
Zizurkil	5	25	17	27
Zumaia	33	50	49	54
Zumarraga Urretxu	63	125	40	54

Donostia eragin eremua	Pribatua matrikulatutako ikasle kopurua HH3n	Hezkuntza eskaintza pribatua HH3n	Publikan matrikulatutako ikasle kopurua HH2n	Hezkuntza eskaintza publikan HH2n
1. Eragin eremua	90	150	150	184
2. Eragin eremua	113	175	62	82
3. Eragin eremua	148	175	18	18
4. Eragin eremua			68	90
5. Eragin eremua	172	225	29	51
6. Eragin eremua	14	25	12	9
7. Eragin eremua	151	175	46	54
8. Eragin eremua	57	100	30	36
9. Eragin eremua	12	25	0	0
10. Eragin eremua	37	50	34	36
11. Eragin eremua	56	100	10	18
12. Eragin eremua	13	25	67	90
<b>Guztira</b>	<b>863</b>	<b>1.225</b>	<b>526</b>	<b>668</b>











[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

### Araba

Eulogio Serdán 5  
01012 **Gasteiz**

☎ 945 141 104 📠 945 144 302  
[araba@steilas.eu](mailto:araba@steilas.eu)

UPV/EHU Arabako Campusa  
Ikasgelategia, 204. Bulegoa  
01006 **Gasteiz**

☎ 945 013 397  
[steilas-araba@ehu.es](mailto:steilas-araba@ehu.es)

### Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk.  
48013 **Bilbo**

☎ 944 100 298 📠 944 101 360  
[bizkaia@steilas.eu](mailto:bizkaia@steilas.eu)

UPV/EHU Bizkaiko Campusa  
Liburutegiko eraikina 1. solairua  
48940 **Leioa** (Bizkaia)

☎ 946 012 434  
☎ 946 012 435  
[steilas-bizkaia@ehu.es](mailto:steilas-bizkaia@ehu.es)

### Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.  
20015 **Donostia**

☎ 943 466 000 📠 943 453 627  
[gipuzkoa@steilas.eu](mailto:gipuzkoa@steilas.eu)

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa  
Ignacio M<sup>a</sup> Barriola eraikina  
Elhuyar Plaza 1  
20018 **Donostia**

☎ 943 018 436  
☎ 943 018 281  
📠 943 018 140  
[steilas-gipuzkoa@ehu.es](mailto:steilas-gipuzkoa@ehu.es)

### Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea  
31014 **Iruñea**

☎ 948 212 355 📠 948 229 790  
[nafarroa@steilas.eu](mailto:nafarroa@steilas.eu)

